



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**LESAKA**

**Hirilurreko eta landalurreko ondasunen gaineko 2018ko kontribuzioa**  
**Hasierako onespena**

Lesakako Udalak, 2017ko irailaren 29an eginiko osoko bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen, bertzeak bertze:

“1.) Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren zerga-tasa ez igotzea 2018. urterako; %0,4787an mantenduko da (2014. urtetik indarrean dagoena bera).

2.) Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren zerga-tasa ez igotzea 2018. urterako; %0,4366koan mantenduko da (2014. urtetik indarrean dagoena bera).

3.) Erabaki hau 30 egunez jendaurrean ikusgai edukitzea, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarrita, herritarrek eta legezko interesdunek espedientea aztertu ahal dezaten.

4.) Aurreko puntuan aipatu den epean erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik ez balego, zerga-tasa horiek behin betiko onetsizat emanen dira. Kasu horretan, lege-ondorioak izan ditzan, egoera hori, behin betiko testuarekin batean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.”

Lesakan, 2017ko urriaren 10ean



Alkatea,

Jose Luis Echegaray Andueza